

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****EMAKUNDE**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko honako hauek prestatze aldera: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak eta/edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak» 2
2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2024ko deialdia 4
3. Elkartegintza sustatzea eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzea 7
4. Enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru laguntzen deialdia, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko 9
5. Dirulaguntzak, 2024. urtean emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat 11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko honako hauek prestatze aldera: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak eta/edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak»

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 22koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateei 2024ko ekitaldian dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko honako hauek prestatze aldera: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak eta/edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Dirulaguntzaren deialdia egin eta arautzen duena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/05/2402562e.pdf>

Dirulaguntza ematen duena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405371e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei, eta mankomunitateei behar den laguntza tekniko espezializatua ematea, 2024. urtean zehar honako hauek prestatze aldera: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak eta/edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak».

Deialdi honetan lehentasuna ematen zaie berdintasunerako diagnostikoa eta/edo plana lehen edo bigarren aldiz egiten duten udalerri, kuadrilla edo mankomunitateei, udalerri guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak gara ditzaten. Era berean, lehentasuna eman zaio mankomunitateka, kuadrillaka edo udalerri-multzo batek programa bateratu bat aurkeztzen badu (udalerri-multzoen kasuan, multzo horretako udalerri bakoitzak 7.000 biztanletik behera izango ditu), politika publikoek ahalmen handiagoa eta oihartzun handiagoa baitute haien ingurunean. Baita, 7.000 biztanletik beherako udalerriak lehenetsi dira ere. Halaber, lehentasuna ematen zaio berdintasun-teknikariaren zuzeneko kontratazioari edo kontratua luzatzeari.

Deialdiaren zenbatekoa bostehun mila (500.000) eurokoa da.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

86 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 19k ez dute laguntzarik jasoko, honako arrazoi hauengatik:

14 ordezeko gelditu direlako. Ordezkoetan beste udal bat gehiago agertzen da, baina dirulaguntza kantitate bat lortu du deialdiaren aurrekontua agortzeko helburuarekin.

1 ez duelako betetzen deialdian xedatutako baldintzak.

3 atzera egiteagatik.

1 Uko egiteagatik.

Dirulaguntza hauek ematen dituen 2024ko urriaren 31ko Ebazpenaren arabera, 68 dirulaguntza emango ziren, guztira 500.000,00 euro. Baina, zuriketa garaian uko egin zuen udala dela eta, 67 dirulaguntza eman ziren 2025 urtean, 62 udalerriri eta 5 mankomunitate, koadrila eta udal-elkarteri. Guztira 494.304,16 euro.

Eman ziren laguntzen ondorioz:

23 laguntza diagnostikoak, berdintasun-planak eta ebaluazioak egiteko izan dira, eta horien arabera:

11 lehen eta bigarren diagnostiko eta berdintasun-planei dagozkie.

12 III, IV edo V diagnostikoak, berdintasun-planak eta/edo ebaluazioak egiteari dagozkie.

44 dirulaguntza diagnostiko eta programa sektorialak egiteko izan ziren. Horiei esker, emakumeek eta gizonak udalaren jarduera-eremu guztietan duten egoera ezagutu ahal izango da, eta behar zehatzetara hobeto egokitutako programak garatu ahalko dira. Diruz lagundutako 44 proiektu horietatik:

7 genero-indarkeriaren arloko protokoloak edo planak egiteko edo ebaluatzeko izan dira.

2 jaietan edo aisialdian indarkeria protokoloen lanketarako izan dira.

30 barne planak eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako protokoloak egiteko izan dira.

5 beste diagnostiko batzuk egiteko izan dira.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Udalerri, kuadrilla, mankomunitate eta bi udalerri baino gehiagoren multzoen zenbat proiekturi eman zaien dirulaguntza	36	67
Biztanle gutxiko (5.000 biztanle baino gutxiago) zenbat udalerriri eman zaien dirulaguntza	30	52



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2024ko deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2024. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia arautzen eta onartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

Ebazpena, 2023ko azaroaren 29koa (EHAA 2023ko abenduaren 20a):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305650e.pdf>

Ematea:

Ebazpena, 2024ko irailaren 13koa (EHAA 2024ko urriaren 2a):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/10/2404531e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2024ko ekitaldian, ondo definitutako hiru beka-mota dauzkagu, hiru motatako ikerlanak egiteko diseinatutakoak. Ikerlanaren xedea honako hau da beka-mota bakoitzean: 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa ekarriko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea. 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko diskriminazioa jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboetan; bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzeari eta segurtasunari dagokienez. 3. mota: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta emakumeen lidergoa eta ahaldu politiko, ekonomiko eta soziala erraztuko duten eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen lagunduko duten ekimenak eta estrategiak bilatzea.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezten ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldian 37 eskabide jaso ziren. Beken % 100 esleitu ziren norgehiagoka-prozeduraren bidez, deialdian ezarritako baremazio- eta prozedura-irizpideen arabera.

1. motako bekarako hemeretzi (19) eskabide izan ziren; horietatik bat (1) izan zen onuradun, hamabi (12) ordezkotako eta sei (6) ezezkotako eman zitzaion arrazoi ezberdinengatik (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, eskaera bikoiztua eta eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik). Beka onuradunaren edukia hau da: "Mujeres en bici por las calles de las capitales vascas. Diagnóstico participado con perspectiva de género".

2. motako bekan, hamar (10) eskaera jaso ziren. Horietatik, bat (1) onuradun izan zen, zortzi (8) ordezkotako eta bat (1) ukatu egin zen (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik). Beka onuradunaren gaia hau da: "Mujeres mayores que viven solas en la Comunidad Autónoma de Euskadi ¿permiso social concedido?".

3. motako bekan, zortzi (8) eskabide: bat (1) onuraduna, zazpi (7) ordezkotako. Beka onuradunaren gaia hau da: "Otras risas son posibles. Desactivando el mito de la insoportable seriedad del feminismo en Euskadi". Beka bakoitzaren iraupena hamar hilabetekoa da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera; dena den, aurtun 2025eko ekainean amaituko da ikerlanak entregatzeko epea. Beken indarraldian, bilera batzuk egin dira mota bakoitzeko beken onuradunekin, aldi horietan egindako lanen kontrola, segimendua eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitutakoan, ikerlan amaitua analizatu eta balioetsiko da, emaitzak eskuratuko dira eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina neurtuko dira.

Aurreko deialdietan bezala, aurreikus daiteke deialdiak eragin positiboa izango duela, bai bekadunen prestakuntzari dagokionez, bai ondoriozko ikerketa-lanen zabalkundeari dagokionez. Ikerlanak amaitu ondoren, hedabideei aurkezten zaizkie, Emakunderen webgunean argitaratzen dira eta Emakunderen Dokumentazio Zentroan gordetzen dira. Beken ondoriozko ikerketek, gaiaren espezifikotasuna dela-eta, genero-ikuspegitik eta EAEren beraren testuinguruan, interes sozial handia pizten dute. Interes hori lehen aurkezpen publikotik harago luzatzen da, lanen kontsultaren bitartez eta egileei elkarrizketak, jardunaldiak, kongresuak eta abar egiteko egindako lankidetzak-eskaeren bitartez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskabide kopurua.	40	37
Prestakuntzan interesa izan duten emakume kopurua.	70	73
Prestakuntzan interesa izan duten gizon kopurua.	15	14
Esleitutako beka kopurua.	3	3
Prestakuntza jasotako emakume kopurua.	5	4
Prestakuntza jasotako gizon kopurua.	2	2
Prestakuntzaren edukiak zabaltzeko ekintzen kopurua.	3	*



* Ikerketa-lanak oraindik ez dira zabaldurik, baina 2025erako aurreikusita dago zabaltzea.



1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Elkartegintza sustatzea eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzea

2.- Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2024ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzen dituena, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta emateko ebazpena argitaratzea (EHAko hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena:

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 29koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2024ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzen dituena, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko.

Deialdiaren ebazpena EHAAn argitaratzea, 2023ko abenduaren 21ean, osteguna

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/12/2305672e.shtml>

Emateko ebazpena:

EBAZPENA, 2024ko urriaren 7koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitira elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko 2024ko ekitaldian.

Emateko ebazpena EHAAn argitaratzea, 2024ko urriaren 25ean, ostirala.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/10/2404907e.shtml>

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren esparruan (legegintzaldiko agenda politikoa jasotzen du, eta, aldi berean, bat dator Gobernu Programaren konpromisoekin), lehentasunezkoztat jotzen diren helburuak identifikatzen ditu: plan hau 3 ardatz bereiziren inguruan antolatzen da, eta lehenengoa emakumeen ahalduntzea da.

Era berean, lehen ardatz horren barruan hainbat programa ezartzen dira, horietako bat emakumeen ahalduntze sozial eta politikora bideratua, eta helburuak honako hauek dira:

- Gizarte- eta herritar-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea
- Emakumeen parte-hartze soziala sustatzea eremu eta gune guztietan
- Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea

Hala, dirulaguntza-lerro honek arestian deskribatutako helburuei erantzuten die, eta honako hauek ematen dira: 400.000 euro emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei, zuzenean eragin dezaten emakumeek euskal gizartean duten parte-hartzean eta sustapenean.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren betearazpena, erabilgarritasuna eta gizarte-eragina. (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda jasoko da, hala badagokio, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuekiko desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

2022ko deialdian emandako dirulaguntzen datuak honako hauek dira:

- Jasotako eskabideak: 106 erakunde (130 proiektu).
- Onartutako eskabideak: 104 erakunde (128 proiektu)
- Erakunde mistoak izateagatik ukatutako eskabideak (ebazpenaren 1. artikulua): 1
- Erakunde onuradunak ez izateagatik ukatutako eskabideak (ebazpenaren 3.1 artikulua): 0
- Gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik ukatutako eskabideak (ebazpenaren 10.2 artikulua): 0
- Emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko eta/edo sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko deialdiko laguntza-lerrora bideratutako eskabideak (Ebazpenaren 4.3 artikulua): 0
- Atzera egindako eskabideak: 1

Prozesua amaitu ez denez, % 75 ordaindu da, 300.000 euro, eta justifikazio-memoria aurkezteko epea 2025eko martxoaren 1ean amaitu zenez, gainerako % 25a ordainduko da, 100.000 euro, emandako dirulaguntza osoaren justifikazio ekonomikoa eta aurkeztutakoa egin izanaren justifikazio teknikoa egiaztatu ondoren.

Dirulaguntza jaso zuten erakundeek gutxi gorabehera 17.000 bazkide dituzte, eta horrek eragin handia du herritarrengan, bai elkarteetan parte hartu zuten emakumeengan, bai herritarrengan, oro har; izan ere, proiektu asko herritarrei irekita daude, eta beste askok erabilera orokorreko baliabide publikoak sortzen dituzte, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen laguntzen dutenak.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
	<u>a</u>	
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	127	128
Dirulaguntza lortu duten emakume-elkarteen ehunekoa, elkarteetan gidan erregistratutako emakume-elkarte guztiekin alderatuta	36	50,5

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru laguntzen deialdia, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 13koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez 2024. urtean enpresei, entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten baitzaie aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, minimis laguntzen araubidea baliatuta, eta zeinaren bidez dirulaguntza horiek arautzen baitira

3.- Arau erregulatzaileria, deialdia eta esleipen-ebazpena argitaratzea (EHAArako hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena: 2023ko abenduaren 13a, eta EHAAr argitaratutako eguna: 2022ko abenduaren 22a.

<https://euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305699e.shtml>

Dirulaguntza emateko eta ukatzeko ebazpena: 2024ko ekainaren 4a, eta EHAAr argitaratutako eguna: 2023ko azaroaren 22a.

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403006e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei diru laguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo entitate pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.

Programa honetako diru-hornidura laurehun mila eurokoa da (400.000,00 €).

Programak enpresak inplikatu nahi ditu, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, lege behartuta ez dauden enpresei eta gehienez 150 langile izan eta behartuta dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko, eta, gutxienez, hogeitaz eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sentsibilizazioa/prestakuntza emateko.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren betearazpena, erabilgarritasuna eta gizarte-eragina. (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda jasoko da, hala badagokio, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuakiko desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

44 entitate aurkeztu ziren, eta deialdiaren irizpideak aplikatu ondoren, eskatzaile guztiei esleitu zitzairen dirulaguntza. Handik gutxira batek uko egin zion. Azkenik, 43 entitate dira diruz lagundu direnak, baina aurrekontu-kreditua ez da agortu, eta gerakin gisa 156.014,64 euro geratu dira.

Dirulaguntza esleitu zaien entitateen artean, 18 Gipuzkoakoak dira, 24 Bizkaikoak eta 1 Arabakoa. Jarduera-eremuari dagokionez, 6 ingeniari-talordeak eta enpresa teknologikoak dira, 7 hezkuntzan eta prestakuntzan aritzen dira, 1 garraioan, 2 eraikuntzan, 2 kimikan, 2 erreminta eta piezen ekoizpenean, 3 elikaduran eta gainerako zerbitzu-esparruetan. Guztira, zifrak, diagnostikoak eta egindako planak, 1276 emakumeri eta 1507 gizoni (diruz lagundutako entitateetako plantillako langileak) eta zeharka askoz ere gehiagori egin die mesede.

Diruz lagundutako entitate guztiek zerbitzuak ematen dituzte, jende askori eman ere, eta pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak inpaktu biderkatzaile handia izango duela etorkizunean, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokionez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak lortzeko orduan dauden desorekak murrizteari dagokionez.

Kasu guztietan, honako hauek hartu dira kontuan: berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egiteko aurkeztutako proposamenaren kalitatea, planak zenbati eragingo dien zuzenean, entitateko pertsonen partaidetza-maila, jarduera-eremua, neurria, lurralde-ezazpena eta entitateko langileen dibertsitate-maila.

6.- Diru laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako enpresen kopurua:	60 eta 80 artean	43 enpresa



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntzak, 2024. urtean emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat

2.- Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2023ko abenduaren 7koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2024an dirulaguntzak emateko deialdia egin eta dirulaguntza horiek arautzen dituen.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta esleipen-ebazpena argitaratzea (EHAArako hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305651e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2024ko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
- Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
- Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
- Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rolak aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
- Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
- Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistemarik onena denez gero.
- Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.
- Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
- Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.



- Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
- Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezen lortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina

Dirulaguntza hauetara, hirurehun mila euro bideratu dira (300 000 €). Deialdi honetan, eutsi egin zaio proiektu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoari, eta 12 000 euro izango dira; gehienez ere bi projektutarako dirulaguntza emango zaio erakunde bakoitzari —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko. 2023an, 80 proiektu aurkeztu ziren, eta 52k jaso zuten dirulaguntza. 2024an, 77 proiektu aurkeztu dira, eta 51ek jaso zuten dirulaguntza. Elkarrekin emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako sentsibilizazioaren eta prebentzioaren alde lan egiteko interesa dutela nabaritu da.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	40	51